



INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

Garraio Sailburuordetza
Garraio Azpiegituren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

Viceconsejería de Transportes
Dirección de Infraestructuras del Transporte

EBAZPENA, 2016ko urriaren 1ekoa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena. Honen bidez, batetik, jabari publikoko emakidaren esleipen-prozedura bati hasiera ematea erabaki da, Mutrikuko portuko antzinako kofradiaren eraikina okupatu eta ustiatzeko, eta, bestetik, prozedura hori arautuko duten oinarriak eta emakidaren baldintzak onartu dira.

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren iritzian beharrezkoa da Mutrikuko portuko antzinako kofradiaren eraikinean (joan zen mendeko lehen laurdeneko eraikuntza, moilaren erdian kokatua) hainbat obra eta erreforma egitea bere ekipamendua hobetzeko, betiere, esandako eraikinaren egitura eta ezaugarri formalak errespetaturik. Funtzionalki ondorengo eginkizun edo xede hauek aurreikusten dira: taberna-jatetxea, ostatua eta museo txiki bat (Bentaleku).

Bigarrena.- Garraio Azpiegituren Zuzendaritza honen interesekoa da lizitazio bat sustatzea, gero, aurrez aipatutako erabilera eta ustiapena adjudikatzeko portuko jabari publikoko okupazioko emakida baten bitartez. Xede horretarako egin da lehiaketa honetarako deialdia, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Estatuko Portuei eta

RESOLUCIÓN de 1 de octubre de 2016, de la Directora de Infraestructuras del Transporte, por la que se acuerda iniciar procedimiento de adjudicación de la concesión demanial para la ocupación y explotación del edificio de la antigua cofradía del puerto de Mutriku, se aprueban las bases que regirán el mismo y las condiciones de la concesión.

Primero.-La Dirección de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco considera necesario realizar en el edificio de la antigua Cofradía del Puerto de Mutriku (construcción del primer cuarto del presente siglo que se asienta sobre el Muelle Central) una serie de obras y reformas que mejoren su equipamiento respetando las características formales y estructurales del edificio en cuestión. Funcionalmente las finalidades previstas son las de bar-restaurante, alojamiento y pequeño museo (Bentaleku).

Segundo.-Es interés de esta Dirección de Infraestructuras del Transporte promover una licitación para la posterior adjudicación de uso y explotación de la misma mediante el otorgamiento de una concesión de ocupación de dominio público portuario para lo cual se convoca el presente concurso de acuerdo con lo establecido en el artículo 83 del Texto Refundido de la Ley de Puertos del Estado y



Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren 83. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena.- Portuetako Jardueren Erregelamenduko 3. artikulua –urriaren 21eko 236/1986 Dekretuaren bidez onartutakoa– Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari egozten dizkio honako hauek: portuen antolamendua, portuetako zerbitzuen kontrola eta kudeaketa, eta, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portuetako instalazioetan eta portuetan burutzen diren jarduerekin zerikusia duen oro.

Laugarrena.- Aurrekoarekin bat etorritz, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 6.e) eta 14.1.m) artikuluek Zuzendaritza honi aitortzen dizkioten eskumenen indarrez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Jabari publikoko emakidaren esleipen-prozedurari hasiera ematea, Mutrikuko portuko antzinako kofradiaren eraikina ustiatzeko.

Bigarrena.- Mutrikuko portuko antzinako kofradiaren eraikina ustiatzeko jabari publikoko emakidaren esleipen-prozedura lehiaketa bidezkoa izan dadin erabakitzea.

de la Marina Mercante, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2011, de 5 de septiembre.

Tercero.- El art. 3 del Reglamento de Actividades Portuarias, aprobado por Decreto 236/1986, de 21 de octubre, atribuye al actual Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial la ordenación portuaria, la gestión y control de los servicios portuarios y, en definitiva, todo lo relacionado con las actividades que se desarrollan en los puertos e instalaciones portuarias competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuarto.- De acuerdo con lo anterior en virtud de las facultades que tiene atribuidas esta Dirección por los artículos 6.e) y 14. 1. m) del Decreto 196/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del departamento de Medio Ambiente y Política Territorial,

RESUELVO

Primero.- Iniciar el procedimiento de adjudicación de la concesión demanial para la explotación del edificio de la antigua cofradía del puerto de Mutriku.

Segundo.- Determinar que el procedimiento de adjudicación de la concesión demanial para la explotación del edificio de la antigua cofradía del puerto de Mutriku sea



el concurso.

Hirugarrena.- Prozedura arautuko duten oinarrien plegua onartzea (ebazpen honen I. eranskinean daude jasota).

Edonola ere, eskabide bat aurkeztu nahi duen edonork aukera izango du obren txostena eta espedientea, oro har, kontsultatzeko Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren bulegoetan, Gasteizen.

Laugarrena.- Emakida arautuko duten oinarriak onartzea (ebazpen honen II. eranskinean daude jasota).

Bosgarrena.- Prozeduraren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Seigarrena.- Ebazpen honek, daraman datatik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 1a

Tercero.- Aprobar el pliego de las bases que regirán el procedimiento y que figuran en el anexo I a esta resolución.



En todo caso, quien tenga interés en presentar una solicitud, podrá consultar el informe de obras así como el expediente en su conjunto en las oficinas de la Dirección de Infraestructuras del Transporte del Gobierno Vasco en Vitoria-Gasteiz.

Cuarto.- Aprobar las condiciones que regirán la concesión y que figuran en el anexo II a esta resolución.

Quinto.- Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el anuncio del procedimiento.

Sexto.- La presente resolución surtirá efectos el día de su fecha.

Vitoria-Gasteiz, 1 de octubre de 2016



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INSTRUMENTA LURRALDE
POLITIKA SAIA
DEPARTAMENTU ENERGIAREN
Y POLITIKA TERRITORIALA

Almudena Ruiz de Angulo del Campo
DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE
GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA

I. ERANSKINA:

MUTRIKUKO PORTUKO ANTZINAKO KOFRADIAREN ERAIKINA OKUPATZEKO ETA USTIATZEKO EMAKIDARAKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRIEN PLEGUA.

I.- XEDAPEN ERKIDEAK.

1.- Xedea.

Lehiaketaren xedea jabari publikoko emakida esleitzeko eskaintza onena hautatzea da ondorengo jabari publikoko ondasunaren okupazio eta ustiapenerako: antzinako kofradiaren eraikin eraberritua, Mutrikuko portuko erdiko moilan kokatua; jabetza publikoko eraikina da, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetako jabari publikoari dagokiona, eta bere xedea taberna-jatetxe, museo eta ostatu zerbitzuak eskaintzea da, kanpo uzten direlarik dantzaleku, diskoteka edo kideko gainerako erabilerak.

2.- Izaera.

1.- Plegu honen bitartez ezarrita geratzen dira aurreko atalean aipatutako jabari publikoko emakida esleitzeko deitu den lehiaketa arautuko duten oinarriak.

2.- Hemen arautzen den prozedurak administrazio izaera du eta aipatutako emakidaren prozedura prestatzen du, haren alde aurreko fase gisa txertatzen dela; hala, lehiaketan hautatua gertatzen denari ematen dio emakida esleitzeko portuetako arautegian ezarritako izapideak egiteko eskubidea, lehiaketan parte hartzen duenak aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta.

3.- Baldin eta lehiaketa irabazi duenak uko egingo balio emakida izapidetzeari edo ez balitu onartuko hura emateko ezartzen zaizkion baldintzak, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak lehiaketan hurrengo tokian sailkatu denarekin hasi ahalko ditu emakidaren izapideak, horretarako lehiaketa berri bat deitu beharrik gabe.

3.- Kokapena eta emakidaren azalera.

1.- Oinarri-plegu honen bitartez adjudikatu nahi den ustiapenerako eraikinak 776,29 m²ko azalera eraikia du, honela banatuta:

-**beheko solairua** (211,47 m²); honako hauek ditu hegotik iparrera: instalazio eta mantentze lanetarako lokala, lehen solairurako igoera, kanpotik zuzeneko sarbidea duten komunak, biltegi txiki bat eskailerapean, taberna erdi aldean eta

sukaldea taberna eta jatetxea zerbitzatzeko (karga-igogailu bidez); eranskinean, garbitzeko gela eta komun-ontzia aparte, eta bi dutxa;

-lehen solairua (409,46 m²); honako hauek ditu hegotik iparrera: lokal erabilgarri bat, antzinako Salmenta Aretoko enkante mekanismoa barnean duen erdiko eremua, portuko gaien erakusketarako espazioa, komunak, jangela eta office bat (jangela, eguraldi ona denean, eranskineko terrazara heda daiteke), eta

-teilatupea, sabai makurtuekin (155,36 m²), non bost logela baitaude bainugelarekin eta hamalau ohetarako tokiarekin, sarbide eremua, pasabidea eta lokal bat biltegi eta garbiketarako.

2.- Esandako lokal horiek gaur egun ez daude baldintza onetan diseinatu zirenean izendatu zitzaizkien jarduerak garatzeko, ez baitute ez egungo osasun-araudia eta ez irisgarritasunekoa betetzen, eta, bestalde, ez dute errespetatzen eraikinaren babes maila hainbat puntutan (eranskinetan erabilitako materialak, etab.). Horregatik, beharrezkoa da eraberritze lanak egitea gaur egun sukaldaritza, ostalaritza eta ostatu emate alorrean indarrean dauden legeetara instalazioak egokitzeko, altzari, tresneria eta gainerako osagarrien instalazioak eta ordezteak barne direla, Portuko Plan Bereziko zuzentzarauak ez ezik, eraikinaren babes mailak ezartzen dituenak ere errespetatzen direla, era horretan, establezimendua abian jartzea eta behar bezala funtzionatzea posible izan dadin.

3.- Lehiaketa honetatik kanpo geratzen da aurrez alpatutako azalerarekin bat ez datorren zeinahi proposamen, ez baita okupatuko den erabilera eskusiboko gehieneko azalaren inolako aldaketarik onartuko.

Ez da inolako azalera-handitzerik onartuko, baimenak eta lizentziak lortzeko behar direnak salbu (adibidez, keen irteerak eta kidekoak), edonola ere behar bezala justifikatu beharko direlarik.

4.- Aurkeztu beharreko proiektua.

1.- Administrazioak orain dauden egoeran entregatuko dizkio lokalak esleipendunari eta honek eraman beharko ditu aurrera establezimenduaren ustiapen egokirako beharrezkoak diren jarduketak eta obrak.

2.- Egin beharreko obrak adierazita daude, gutxi gorabehera eta gutxienean, «Mutrikuko antzinako arrain merkatuaren eraikinean taberna-jatetxea egokitzeko

txostena (2016ko otsaila)» delakoan. Eskaintza bat egiten duenak obra eta jarduketan programazio bat proposatu beharko du, lanak behe-denboraldian eginez eta, ahal dela, goi-denboraldian aktibitateari eutsiz, hala, pixkanaka, eraikina –balio arkitektoniko handikoa eta izaera bakanekoa– indarrean dagoen legeriara egokitu dadin eta, bere izaera errespetatuz, instalazioak eguneratu ditzan, betiere, kalitateko zerbitzua eskain dezan eta udalerriko turismoari lagun diezaion trakzioko elementu gisa jardunez. Lokalak egokitzeko egin beharreko obrak behin amaitu direnean –aldez aurretik, nahitaezko baimenaren bitartez onartu beharko dira–, emakidaren titularrak idatziz eskatu beharko dio eraikinaren ardura duen zuzendaritzari –gaur egun Garraio Azpiegituren Zuzendaritza–, aintzatetsi eta aitortu ditzala egindako lanak, haien planoak eta akta jasorik, eta ondoren, onar ditzala.

5.- Eskabidea egiteko betebeharrak.

1.- Espainiako edo Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridiko guztiek parte hartu ahalko dute lehiaketan, jarduteko gaitasuna izanik, beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, azaroaren 14ko 3/2011 LEDak onartutako Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 60. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekuen pean ez badaude eta administrazio- edo zigor-zehapenik ezarri ez baldin bazaien sexu-diskriminazioan erori direlako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen indarrez.

2.- Pertsona juridikoak emakiden esleipendun izango badira, beharrezkoa izango dute beren estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat etortzea, eta emakida behar bezala egikaritzeko nahikoa elementu pertsonal eta material dituen antolakunde bat eduki beharko dute.

3.- Espainiakoak ez izan arren, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko enpresek badute kontratatzeko ahalmena, betiere, kokatuta dauden Estatuko legerian ezarritakoaren arabera, kontratuaren xedea den prestazioa egikaritzeko gaituta baldin badaude.

4.- Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridiko atzerritarrek lehiaketan parte hartu ahalko dute, aurreko paragrafoan zehaztutako betebeharez gainera, ondorengo hauek ere betetzen badituzte:

- Espainiar herritartasuna duten pertsonetikiko elkarrekikotasuna existitzen den estatu batekoak izatea.
- Espainiako Estatuan egoitza fiskala edukitzea.
- Estatuko kontratuen legeriak atzerritarrekin kontratatatu ahal izateko eskatzen dituen baldintzak betetzea.

Hori guzfia atzerritarrei emakida esleitzeko lege berezietan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

5.- Espainiakoak ez diren pertsona fisiko edo juridikoek adierazi beharko dute Espainiako Epaitegien jurisdikzioaren mende egongo direla lehiaketa honetatik erator litezkeen gorabehera guztietan.

6.- Lehiaketara aurkeztu ahal izango dira xede horretarako eta aldi baterako eratu diren enpresa elkarteak, eta ez da beharrezkoa izango elkartea eskritura publikoan formalizatzea, harik eta emakida haren alde esleitu arte.

7.- Ez da onartuko lehiaketara ondasun-erkidegorik aurkeztea.

8.- Automatikoki lizitaziotik kanpo geratuko dira azaroaren 14ko 3/2011 LEDak onartutako Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 60. eta 61. artikuluetan aurreikusitako kontratatzeko debekuen pean dauden pertsona fisiko edo juridikoak eta ondorengo beste hauek:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako baimen edo emakidekin erlazionaturik ezarri zaizkien obligazioak bete ez dituztenak.
- Aipatutako titulu horietakoren bat edukirik edota eduki izanik, haiei dagozkien ordainketa-betekizunak egunean ez dauzkatenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin zeinahi motatako zorrak dituztenak.

9.- Aurrez xedatu den horrek eragina izango du, era berean, zuzendaritzan dauden pertsonen edo bestelako inguruabarrei erreparatuz, kontratatzeko debekua duten

enpresen jarraipena edo ondorena direla –eraldatze, bategite edo ondorengotza bidez– uste izatekoa den enpresetan.

II. ESLEIPEN-PROZEDURA

5.- Proposamenen aurkezpena.

Proposamena aurkezteak berarekin dakar onartzen direla plegu honetako oinarriak eta emakidaren baldintzak, eta esan nahi du parte hartzea eskatzen duenak erantzukizunpean adierazten duela emakida lortzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

6.- Proposamenak aurkezteko epea eta tokia.

1.- Honen bidez, deialdia egiten den lehiaketan parte hartzeko eskabideak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erregistro Nagusira –Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz 01010– aurkeztu beharko dira, eta Garraio Azpiegituren Zuzendaritzara zuzenduko dira.

2.- Horretarako epea 2016ko azaroaren 1ean hasiko da, goizeko 09:00etan, eta 2017ko otsailaren 28an amaituko da, eguerdiko 12:00etan.

3.- Eskabidea postaz bidaltzen den kasuan, ezinbesteko betebeharra izango da Posta Zerbitzu Unibertsala ematen duen Correos erakundearen bulego batetik egitea, adierazitako onartze-epearen barruan. Aurkezten duenak bidalketa egin duen data justifikatu beharko du, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari iragarritz, burofax, fax edo telegrama bidez, egun berean eta igorpen bakarrean.

Aipatutako baldintza hori bete ezean, proposamena ez da onartua izango baldin eta iragarkian adierazitako data eta ordua igaro ondoren jasotzen bada.

4.- Eskatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez eta beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik sinatu ere, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, eta ezingo da aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon. Baldintza hori betetzen ez bada, ez dira onartuko aurkeztutako proposamenak.

5.- Behin emakida izapidetu denean eta errekurtsioak aurkezteko epeak igaro direnean halakorik aurkeztu gabe, hautatuak izan ez diren eskabideei dagokien dokumentazio orokorra eskabidea aurkeztu duenaren esku geratuko da Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren bulegoetan. Baldin eta dokumentazioa 6 hilabeteko epean jasoko ez balute, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak suntsitu egingo du.

7.- Proposamenak aurkezteko modua.

1.- Bai proposamenak eta bai gainerako dokumentuak –guztien multzoak eskaintza osatuko dute– bi (2) gutun-azal itxiren barruan entregatuko dira. Gutun-azal horien aurreko aldean eskabidea egiten duenaren edo hura ordezkatzeko duenaren izena, bizitokia eta jakinarazpenetarako fax zenbakia eta helbidea idatziko dira, gutun-azal bakoitzean prozeduraren titulua adieraziko delarik. Aldi baterako enpresa elkarte bat baldin bada, haletako bakoitzaren datuak adieraziko dira eta elkarte osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariak sinatu beharko dute gutun-azala.

2.- Baloraziotik kanpo uzteko arrazoia izango da adierazitako dokumentazioa ez aurkeztea eta ez dira onartuko aurkeztutako eskaintza ezagutzea eragozten duten omisioak, okerrak edo zirimarrak dituzten proposamenak, hargatik eragotzi gabe Balorazio Batzordeak eska ditzakeen argibideak.

Norbaitek iritziko balio bere eskaintzako dokumentazioan izaera konfidentzialeko informazioa dagoela, adierazpen osagarri bat erantsi beharko du 1. gutun-azalean, non adieraziko duen zein diren, bere iritzian, isilpeko izaeraz tratatu beharreko agiri administratiboak, teknikoak eta datuak.

Izaera hori, gainera, halakotzat hartzen den dokumentuan bertan islatu beharko da argi eta garbi (gainean inprimatuta, alboan adierazita edo beste zeinahi modutan). Enpresa lizitatzailak aurkeztutako agiriak eta datuak izaera konfidentzialekotzat hartu ahal izango dira haiek hirugarrenei zabaltzea aurkezlearen interes komertzial legitimoen kontrakoa denean, sektoreko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edota DBLOan ezarritako debekuen barruan sartzen direnean. Adierazpen hori erantsi ezean, izaera horretako dokumenturik edo daturik ez duela iritziko zaio.

8.- Proposamenen edukia.

1.- Gutun-azal bakoitzean dokumentazio hau sartuko da:

1. GUTUN-AZALA:

a) Eskabidea aurkezten duenaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa, hau da, NANaren fotokopia konpultsatua edo, pertsona juridikoa den kasuan, IFZren fotokopia konpultsatua, eskatzailearen ordezkatzeko-ahalmena, bai eta estatutu sozialak ere, eta Merkataritzako Erregistroan behar bezala izena emanda egon beharko dute.

d) Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela egiaztatzeaz gainera, zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean dagoela erakutsi beharko du, organo eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bitartez. Halaber, erantzukizun-deklarazio bidez ere egiaztatu ahal izango da. Azken kasu horretan, baldin eta eskatzailea izango balitz esleipenduna, bost egun balioduneko epea emango zaio aipatutako betebeharrak horiek behar bezala egiazta ditzan.

e) 6.000 €ko (sei mila euro) behin-behineko fidantza Eusko Jaurlaritzako Finantza Zuzendaritzaren aurrean eratu eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku utzi izana egiaztatzen duen ordainagiria. Fidantza hori itzuli egingo zaie lehiaketaren esleipena lortu ez dutenei.

f) Eskabidea egiten duenaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala ezagutzea eta hari buruzko irizpidea osatzea ahalbidetzen duen dokumentazioa edota memoria; baita proposatutako erabilerekin lotutako lanetan duen esperientzia egiaztatzen duena ere, zerbitzuen lekuak eta urteak adierazita.

2. GUTUN-AZALA

a) Emakidaren xede diren lokaletan egin beharreko obra eta instalazioei buruzko oinarritzko proiektu bat gutxienez barnean duen memoria eta esandako lanen aurrekontua eta kronograma, beroriei buruzko epeak eta inbertsio-aurrekontuak ezartzen dituenak.

- b) Eraikinaren ustiapen plana, non garatuko diren jarduerak eta eskaintako zerbitzuak deskribatuko diren, plegu honen 1. klausularekin bat etorririk.
- c) Bitarteko material, altzari, tresneria, eta erabili beharreko ekipamendu oinarrizko eta osagarrien deskribapena, eta zer giza baliabide proposatzen diren eraikina ustiatzeko urteko aldi bakoitzean, irekita egongo den egunak eta ordutegiak, eta emango diren zerbitzuak adierazita (ostatua, jatetxea...).
- d) Negozioaren bideragarritasuna eta eskaintako tasak justifikatuko dituen azterketa ekonomiko-finantzarioa, ustiapenaren bilakaera aurreikusi eta honako hauek barnean dituen:
 - Estimaturako diru-sarreraren zerrenda.
 - Gastuen zerrenda, obra eta instalazioenak eta ordaindu beharreko kanon eta tributuoak barne (OHZ, etab.); baita kontserbaziokoak, energia-kontsumoenak, langileenak eta ustiapenerako beharrezkoak diren gainerakoak ere.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari ordaindu beharreko urteko tasaren zenbatekoa hobetzeko proposamen zehatza, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 196.10 artikuluan ezarritakoa kontuan harturik. Tasa hori emakida arautuko duten baldintzetako 5. zenbakian adierazitakoa da.

2.- Halaber, eskabidea aurkezten duenak interesekoak estimatzen dituen ustiapen-baldintza guztiak eskain ditzake, eta baldintza horiek, baldin eta Administrazioak kontuan hartuko balitu, zuzenean aplikatzekoak izango zaizkio.

3.- Eskaintzan sartzen diren dokumentuak lotesleak dira. Era berean, gutun-azal bakoitzean jasotako atal desberdinak ongi identifikatuta eta zenbaki honetan ezarritako ordenan egon beharko dute.

9.- Proposamenaren hautaketa

1.- Eskaintzak ondorengo kide hauek osatuko duten Balorazio Batzordeak balioetsiko ditu, azterketaren objektibotasuna bermatu dadin:

- Garraio Azplegituren Zuzendaritzako 2 pertsona
- Mutrikuko Udaleko 2 pertsona
- Turismo Zuzendaritzako 2 pertsona
- Arkitekturako titulazioa duen pertsona bat

2.- Batzordeak betekizun formalak betetzen dituztelako onartutako proposamenak sailkatuko ditu. Aipatutako sailkapena Garraio Azplegituren Zuzendaritzari igorriko zaio.

3.- Lehiaketaren esleipena Garraio Azplegituren Zuzendariak emandako Ebazpen baten bitartez egingo da, hilabeteko epearen barruan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik zenbatuta. Aurkeztutako eskaintzetatik bakar batek ere beteko ez balitu baldintza egokiak hutsik edo eman gabe deklaratu ahalko da lehiaketa.

10.- Balorazio-irizpideak.

1.- Honako hauek izango dira aipatutako lokalen erabilpen eta ustiapenerako jabari publikoa okupatzeko emakidarako lehiaketa ebazteko baloratuko diren irizpideak:

a) Eskaintza ekonomikoa (0 eta 30 arteko balorazioa):

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 196.10 artikuluan ezarritako urteko tasaren zerbatekoaren hobekuntza, kontuan harturik beharrezkoa dela **Gobernu Kontseiluak hura onartzea, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak alde aurretik txostena jaulki ondoren.**

Ondorengo formula erabiliko da eskaintza ekonomikoen balorazioa egiteko:

- MOV = Baloratu beharreko eskaintzan proposatutako urteko tasaren hobekuntza
- MM = Proposatutako gehieneko urteko tasaren hobekuntza



$$30 \times \left(\frac{MOV}{MM} \right)^2$$

b) Eraikina erreformatu eta araudira egokitzeko proiektua (0 eta 40 arteko balorazioa):

- **Haztapena: 40 puntu**
- Eskaintzako memoriaren edukia analizatuko da, proiektuaren azterketari dagokionez, eta ondorengo alderdiok baloratuko dira:
 - Taberna-jatetxearen eta museoaren espazioen banaketa, eraikinaren irudia errespetatzea mesedetzen dela. Proposatutako materialak eta koloreak baloratuko dira, aintzat harturik bat etorri beharko dutela eta egokiak izan behar dutela eraikinaren ezaugarriekin eta erakargarriak erabiltzaileentzat, era berean, garbitasun, kalitate eta funtzionaltasun irudia ematen dutela (10 puntu).
 - Ostatutarako espazioaren optimizazioa, gela eta instalazioen irudia eta kalitatea hobetuz (berorien tipologia, tamaina, komunak, instalazioak, wifi, etab.). Kalitate handieneko ostalaritza-kalifikazioa lortu nahi duen proposamenari emango zaio puntuazio handiena (10 puntu).
 - Proposameneko irisgarritasun hobekuntzak. Indarrean dagoen legeria betetzea premisatzat harturik, mugikortasun urriko erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzeko proposamenak baloratuko dira: 5 punturekin mugikortasun murrizteko pertsonen irisgarritasuneko hobekuntzak eta beste 5 punturekin beste mota batzuetako irisgarritasun hobekuntzak (komunikazioa, ikusmenekoa, etab.) (10 puntu).
 - Instalazioen hobekuntza; puntuazio berezia emango zaie energia-eraginkortasuna hobetzeari, energia berriztagarrien erabilerari edota eraginkortasuna frogatuta dutenei. (10 puntu).

c) Eraikinaren ustiapen plana (0 eta 20 arteko balorazioa):

- Eskaintzen diren zerbitzuak, jarduerak eta ordutegiak. Bereziki baloratuko da:
 - o Kalitateko eskaintza gastronomikoa, tokiko eta denboraldiko produktuak sustatzen dituen, baita bertako kultura eta ondare gastronomikoa ere, uneoro bermatuz bezeroekin bi hizkuntza ofizialetan komunikatzea, batez ere euskarari arreta berezia eskainiz. Kontuan hartuko da alderdi horiei buruzko esperientzia proposatutako pertsona guztietan (gerentea, sukalde-burua) (8 puntu).
 - o Udalerrriaren historiari eta tokiko arrantza-jarduerei buruzko Bentaleku museoko Bisita Plana sustatzea eta hobetzea. Turismoaren sustapenerako beste udal ekimen batzuekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea. Teilatupeko solairuan kokatutako ostatu-zerbitzua sustatzea Udalarekin koordinatzearen eta gizarte-sareak eta teknologia berriak erabiltzearen bitartez (8 puntu).
 - o Gizarte-erantzukizuna: puntuazio handienarekin baloratuko dira (4 puntu) honako hauek:
 - 1.- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak sustatzen eta laneratzen berriaz aritzen diren enpresak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu batagina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.3 xedapen gehigarria)
 - 2.- % 33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa duten ahalik eta pertsona gehien kontratatzea, ezinbesteko baldintza izango delarik kontratatutako plantillaren % 2, gutxienez, desgaitasuna duten pertsonak izatea, 4.2 xedapen gehigarriaren arabera.
 - 3.- Irabazi asmorik gabeko erakundeak, 4.4 xedapen gehigarriaren arabera.
 - 4.- Bidezko Merkataritzako erakundetzat aitortzen direnak, 4.5 xedapen gehigarriaren arabera.

d) Azterketa ekonomiko-finantzarioa (0 eta 10 arteko balorazioa)

- Jardueraren azterketa ekonomiko-finantzarioa, negozioaren bideragarritasuna eta eskaintako tasak justifikatzen dituen, emakidaren epearen arabera.

II. ERANSKINA.

MUTRIKUKO PORTUKO ANTZINAKO KOFRADIAREN ERAIKINAREN OKUPAZIO ETA USTIAPENERAKO EMAKIDA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK

1.- Emakida –ez du esan nahi ez jabari publikorik, ez Euskal Autonomia Erkidegoaren jabari-ahalmenik lagatzen denik– hirugarrenen kalterik gabe eta aurrez existitzen ziren eskubideak salbu utzirik ematen da, ebazpen honetan jasotako klausulei lotuta baitago, eta beste testu bategin eta lege-xedapen hauek ere beteko ditu: irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Estatuko portuei eta nabigazio zibilari buruzko Legearen testu bategina; urriaren 21eko 236/1986 Dekretuak onartutako Portuko lanei buruzko Araudia; irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina.

2.- Emakida honen gehieneko iraupen-epea 50 urtekoa izango da, esleipenaren ebazpena ematen den egunetik zenbatuta.

Hala ere, epe hori laburragoa izan ahalko da emakidaren titularrak hala eskatzen badu eta nahitaezko kostu-onura analisian justifikatzen badu. Aipatutako epea behin igaro denean, Administrazioak luzatu ahal izango du, 5na urteko hurrenez hurrengo epeetan, legezko gehienekora heldu arte. Luzapen horiek emateko beharrezkoa izango da emakidaren titularrak Administrazioari luzapena eskatzea epea amaitu baino 6 hilabete lehenago eta, era berean, komenigarria izatea Administrazioak gomendatuta dituen interes publikoen ikuspegitik.

3.- Esandako emakida emateak ez du titularra salbuesten legez eskatu daitezkeen lizentziak eta baimenak lortzetik eta horiek indarrean mantentzetik, ez eta dagozkion zergak ordaintzetik ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga barne dela.

4.- Emakidaren titularrak emakidaren xede den portuko jabari publikoari eta bertan egin beharreko obra eta jarduerari dagokienez, egun indarrean dauden edo etorkizunean onartzen diren xedapen guztiak bete beharko ditu.

5.- Emakidaren titularrak, emakida eman zaion Ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera, **C-1 tasa** ordaindu beharko du, portuko jabari publikoa okupatzeagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoetarako Buruzko Legearen ezarritakoaren arabera.

2016 urterako, honako hau da tasaren zenbatekoa: **17,82 €/ m²/urte**. Hurrengo urteetan, C-1 tasa horren zenbatekoa eguneratu egingo dute, urtean urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituzten Legeek.

Ateratzen den zenbatekoari indarrean dagoen BEZa gehitu beharko zaio, bai eta % 50eko igoera ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen Legeko 196. 10.3 artikuluaaren arabera.

Zenbateko hori hobetzeko aukera egongo da lizitatuak aurkeztu duen eskaintzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoen Legearen 196. 10.1 in fine artikuluaaren arabera.

6.- Emakidaren titularra behartuta dago emakidan jasotako obrak erabiltzeko egoera onean, garbi eta apain mantentzera, eta bere kontu eta kargura egin beharko ditu beharrezkoak diren ohiko nahiz ezohiko konponketak.

Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak, Gipuzkoako Portuen Zerbitzuaren bitartez, noiznahi ikuskatu ahal izango du emandako obraren kontserbazio-egoera eta zer konponketa egin behar diren adieraziko du. Emakidaduna behartuta egongo da konponketa horiek bere kontu eta kargura egitera, adieraziko zaion epean. Konponketa lan horiek egingo ez balitu, Administrazioak dagokion zehapen-espeditua abiarazi beharko du, aurrez aipatutako Estatuko portuei eta nabigazio zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren Hirugarren Liburuko IV. Tituluarekin bat etorriz.

7.- a) Emakida emandakoan, **behin betiko bermea** edo eraikuntzako eratu da. Berme hori proiektuko eta emakidari atxikitako lanen eta instalazioen guztizko aurrekontuaren % 5koa da eta horrekin lanen exekuzioari eta emakidaren ondoriozko gainerako obligazioei erantzun zaitza.

Aldez aurretik **behin-behineko bermea** eratuta egongo denez, nahikoa izango da hura osatzea aurreko paragrafoan zehaztutako guztizko aurrekontuaren % 5 osatu arte.

Emakidaren titularrak ez badu eratzen behin betiko edo eraikuntzako bermea emakida-ebazpenak ondorioak dituen egunetik hasi eta hamabost (15) eguneko epean, emakidari uko egiten diola ulertuko da.

Behin betiko bermea edo eraikuntzako eratzea nahitaezko baldintza izango da emakidari atxikitako lanak egiteko.

Behin betiko bermea edo eraikuntzako emakidaren titularrari itzuliko zaio hilabeteko epean, Garraio Azpiegituren zuzendaria egindako obrak eta instalazioak aintzatetsi eta onartzen dituen egunetik zenbatuta.

Baldin eta interesdunak Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren iritzian justifikaziorik gabe uko egiten badio eskabideari edo tituluari, galdu egingo du bermea.

Behin betiko edo eraikuntzako berme hori itzuli aurretik, beharrezkoa izango da ustiapen-bermea eratzea.

b) Behin lanak amaitu eta lurralde-zerbitzuak haiek aintzatetsi ditunean, ebazpen bidez onartuko da haien aintzatespena. Ebazpen hori jakinarazi eta hamabost (15) eguneko epean, emakidaren titularrak **20.000 euroko (hogei mila) ustiapen-fidantza** eratu beharko du, Eusko Jaurlaritzaren Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzaren aurrean, eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eskura utzi beharko du. Bermea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian kontsignatuko da, ebazpen honetan aurreikusitako betebeharrak guztiak betetzen direla bermatzeko.

Eskatzaileak ez badu esandako ustiapen-fidantza aipatutako epean eraten, emakidari uko egin diola ulertuko da.

Fidantza hori emakidaren titularrari itzuliko zaio emakidaren epea amaitu ondoren, betiere hark ez baldin badu erantzun beharreko betebeharririk edota emakida luzatzen ez bada.

Ustiapen-fidantzak honako hauen erantzungo die: emakidaren ondorio diren betebeharrak guztiak, emakidaren baldintzak ez betetzeagatik emakidaren titularrari ezarri ahal zaizkion zigorrak, eta baldintza horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalte eta galerei.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak fidantza osoa edo haren zati bat egikaritutako balu, emakidaren titularrak hura osatu edo itzuli egin beharko du, hilabeteko epean, zenbatekoaren murrizketaren jakinarazpena egiten zaion egunetik zenbatuta. Betebeharrak hori betetzen ez bada, emakida iraungi egingo da.

Ustiapen-fidantza bost urtetik behin eguneratuko da, kontsumoko prezioen indize orokorrak (KPI) estatu-mailan aldi horretan izandako aldakuntzarekin proportzioa gordez.

c) Ustiapen-fidantza eratu eta hamabost (15) eguneko epean, emakidaren titularrak emakida honen xede den azaleraren Akta eta Planoak jaso ditzan eskatuko dio Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari eta, esandako agiri horietan, azaleraren deskribapena eta erabilera-egoera adieraziko dira.

8.- Emakidaren titularrak taberna-jatetxe, museo eta ostatu zerbitzuak emateko erabiliko du emakidan esleitu zaion azalera, eta ezingo du ebazpen honetan adierazi diren erabilpen horietarako beste ezertarako erabili.

9.- Emakidaren titularrak bere arrisku eta zorian kudeatuko du jarduera. Administrazioak ez du erantzukizunik ez emakidadunak bere gain hartutako obligazioen gainean ez eta hark hirugarrenei eragindako kalte edo galeren gainean ere. Ustiapenerako beharrezkoak diren pertsona guztiak emakidaren titularraren kargura egongo dira. Haren kontura joango dira, halaber, elektrizitatea, ura, telefono-zerbitzua, zabor-bilketa, eta esandako jarduerak garatzeko behar diren eta haietatik eratortzen diren gainerako gastuak.

10.- Emakidaren baldintzak ez betetzea, iraungitzea ekartzeaz gain, arau-haustea ere izan daiteke, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera –horren bitartez, Estatuko portuei eta nabigazio zibilari buruzko Legearen testu bategina onartu zen–. Arau-hauste horien ondorioz, emakidaren titularrak zigorra jaso dezake, hala balegokio eska dakizkiokeen gainerako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Arau-hausteak aldez aurretik kasuan kasuko administrazio-espedientearen instrukzioa egin ostean zehatuko dira, administrazio prozedura arautzen duen legeriak ezarritakoaren arabera.

11.- Behin emakidaren epea amaitu denean, Euskal Autonomia Erkidegora itzuliko da emakidaren xede izan den jabari publikoa, emakidaren titularrak hura luzatzea eskatu eta Administrazioak luzapena ematea bidezko ikusten duenean salbu.

Dagokion akta egingo da itzultako ondasunak Administrazioak jaso dituela adieraziz. Akta emakidaren titularraren aurrean egingo da, hura agertzen bada. Akta horretan, aipatutako ondasunak zer egoeratan dauden idatziko da, eta kalterik balego, horiek ere zehaztuko dira. Narriadurak baleude, Akta erabiliko da oinarritzat dagokion espedientea irekitzeko, eta bertan zehaztuko da konponketen zenbatekoa, emakidaren titularrari eskatuko zailona. Lehenik eta behin, iristen den neurrian, emandako fidantza aplikatuko da eta premiamenduzko administrazio prozedura erabiliko da fidantzak estaltzen ez duen kreditu zatirako.

12.- Emakidaren iraungipena deklaratu beharko da Kostaldeein buruzko Legeak eta hura garatzen duen Erregelamenduak horrela markatzen dituzten kasuetan, berorietan ezarritako prozedurarekin eta eraginekin bat etorritz.

13.- Administrazioak itxi ahal izango du jabaria publikoarentzat aldi baterako, inguruabarrek hala aholkatzen dutenean, erabiltzaileen segurtasunerako edo osasunerako arriskuak ekiditeko edo beste egoera ez-ohiko edo salbuespenezko batzuetan, itxiera horietatik inolako kalte-ordainik eratorri gabe.



14.- Emandako jabari publikoko lur sailak beharrezkoak balira –osorik edo partzialki– onura publikoko lanak egiteko edo zerbitzuen eskakizunak betetzeko, eta horiek guztiak egiteko beharrezkoa balitz emakida honen bitartez baimendutako obrak erabiltzea edo suntsitzea, Administrazioak epemuga baino lehen erreskatatu ahal izango du emakida. Kasu horretan, emakidaren titularrak kalte-ordainak jasotzea beste eskubiderik ez du izango, aurrez egindako tasazioaren arabera.

Erreskatatutako ondasunak Administrazioari itzullitakoan, ustiapen-fidantza itzuliko zaio emakidadunari, hark eskatuta, eta hala dagokionean, emakidaren titularrak izan ditzakeen erantzukizunengatik ordaindu beharrekoak kenduko zaizkio fidantzatik.

15.- Emakidaren epea amaitu delako, ondasunak itzuli beharra gertatuz gero, automatikoki iraungita geratuko dira emakidako jabari publikoaren gainean eta itzultzekoak diren obra eta instalazioen gainean hirugarren pertsonak izan litzaketen eskubide erreal edo pertsonalak. Halaber, Administrazioak ez ditu bere gain hartuko emakidaren titularrak bere jarduera aurrera eramateko eginda eduki ditzakeen lan kontratuak, eta, beraz, ez da inola ere aplikatzekoa izango Langileen Estatutuaren 44. artikuluan aurreikusitakoa enpresa lagatzen den kasuetarako. Era berean, aurreko hori aplikatzekoa izango da emakidaren iraungitze eta erreskate kasuetan. Horrek ez du kentzen, kasu horietan, hirugarren interesdunek dagozkien ekintzak egikaritu ahal izatea, hala dagokionean, emakidadunak emakida iraungitzearen edo erreskatatzearen ondorioz jasotzekoa duen kanfitatearen gainean.

Emakidaren gaineko hipotekak eta beste berme-eskubide batzuk eratzeko ere beharrezkoa izango da Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren alde aurreko baimena.

16.- Jabari publikoa okupatu eta eraikina erabili eta ustiatzeko emakidak jabari publikoaren izaera izango du eta berori interpretatzean edo betetzean sor litezkeen konponezin guztiak Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak ebatziko ditu.

17.- Ebazpen honetan aurreikusi ez den guztian, aipatutako lege-oinarrietan eta oro har eta bereziki aplikatu beharreko gainontzekoetan ezarritakoa bete beharko da.